



ZARAUZKO UDALA

NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAKO APARTAMENTUEN ERREGELAMENDUA

ZARAUZKO UDALA

ZIOEN AZALPENA

Erregelamendu honen xedea da NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAKO apartamentuen erabilera eta sarbidea arautzea.

AUZOLANA programa Estatu Espainolean nazioarteko babesa eskatzen duten eta Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait herritan harrera egiten zaien pertsonentzat da. Programa hori Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak jarri du martxan, proiektu pilotu gisa, eta bere helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera hobetzea.

Horretarako, 2018ko urtarrilaren 15ean, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiak eta Estatu Espainoleko Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak (Estatuko Aldizkari Ofizialean 2018ko otsailaren 23an argitaratua). Hitzarmen horretan xedatzen da AUZOLANA proiektuko jarduerak honako protokolo honetan kokatzen direla: NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN ETA JASOTZEN DUTENENTZAKO JARDUERAK ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOAREN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA TOKIKO ERAKUNDEEN ARTEAN KOORDINATZEKO PROTOKOLOA.

AUZOLANA proiektua EAEko zazpi herritan hasi da, proiektu pilotu gisa; horien artean, Zarautzen. Izan ere, Zarauzko Udaleko bozeramaile batzordeak 2015eko irailaren 7an onartutako adierazpen instituzionalean, besteak beste adierazi zuen bere baliabideak eskura jarriko zizkiela agintari eskudunei, ahal zuen neurrian larrialdiko egoerari erantzuteko.

Ondorioz, 2018ko otsailaren 28ko 0235 Dekretuaren bidez, alkate jaunak erabaki zuen udal jabetzako bi etxebizitza gizarte zerbitzuen beharretarako gordetzea (Zuberoa kalea 8, 1-B eta Zuberoa kalea 8, 5-B); momentu honetan, Auzolana programaren 2. faserako erabiliko dira.

Bi etxebizitza horien xedea da erregelamendu honen bigarren artikuluan definitutako egoerei irtenbide bat ematea, apartamentu horiek aldi baterako erabiltzen lagata. Apartamentuen lagapenak zerbitzu publikoaren prestazio izaera du, eta, hortaz, herri administrazioetako zerbitzuen prestazioa arautzen duen arautegia jarraitu behar du. Hau da, apartamentu horien aldi bateko erabiltzailearen eta Zarauzko Udalaren –edo zerbitzua kudeatzen duten zerbitzuaren– arteko harremanak ez du errentamenduaren izaera juridikorik izango. Apartamentua ezingo da inola ere denbora mugarik gabe laga.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Erregelamendu honen xedea da NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMARako jarritako udal jabetzako apartamentuen erabilera eta sarbidea arautzea.

2. artikulua. Helburuak

NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAKO apartamentuek honako helburu hauek dituzte:

- a) NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAN daudenei bizitokia ematea.
- b) NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAREN barruan herrian daudenek edo herrira etorriko direnek ahalik eta integrazio-ibilbide azkarrena eta eraginkorrena izatea.
- c) Pertsona horien integrazio-ibilbidea ez etetea, alegia, hasieratik harrera egin zaien herrian jarraitu ahal izatea, ehundu dituzten gizarte-sareak balio izateko.
- d) Aurreiritziek eraginda, jatorri jakin batzuetako nazioarteko babes eskatzaile edo errefuxiatuek etxebizitza bat errentan hartzeko dituzten zailtasun gehigarriak ekiditea.
- e) Etxebizitzaren truke ordaindu beharreko tasa NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAN dauden pertsonen eta familien baliabide ekonomikoetara egokitzea.
- f) Zarautz nazioarteko babes eskatzaileak eta errefuxiatuak hartzen dituen herri izatea.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK

3. artikulua. Onuradunak zehaztea: betebeharrak

Apartamentu horien onuradun izan daitezke nazioarteko babes eskatzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAN sartuta dauden eta adin txikikoak dituzten familiak. Eta programa horren baitan, etxebizitza bat errentan hartzeko bilaketa aktiboa egin dutenak.

4. artikulua. Onuradunen eskubide eta betebeharrak

4.1. Eskubideak

Arau orokor gisa, onuradunek ondoko dekretuan adierazitako eskubideak izango dituzte: 64/2004 DEKRETUA, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea, onartzen duena.

4.2. Betebeharrak

Arau orokor gisa, onuradunek ondoko dekretuan adierazitako betebeharrak izango dituzte: 64/2004 DEKRETUA, apirilaren 6koa, euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea, onartzen duena.

Eta bereziki:

- a) Bi agiri sinatuko ditu: batetik, sartzeko eskaera-orria, eta, bestetik, NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMARako apartamentua erabili eta gozatzeko arautegian adierazitako arauak beteko dituela adierazteko konpromisoa.
- b) Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta familia horien harreraren arduraduna den erakundearen artean adostutako esku-hartze eta akonpainamendu programa jarraitu eta bete.
- c) Bizitokian egonaldiak irauten duen bitartean etxebizitza bat errentan hartzeko bilaketa aktiboa egin.
- d) Gizarte Zerbitzuetako eta NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAKO erreferente profesionalak etxebizitzan sartzea onartu.
- e) NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAREN helburuak, betebeharra eta konpromisoak betetzea.
- f) Familiak NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMA bukatu badu eta etxebizitzan jarraitzen badu, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek adierazitako epean etxebizitza uztea.
- g) Bizitokian berekin batera dauden beste pertsonen pentsamendu, iritzi, ideologia eta erlijio askatasuna errespetatu.
- h) Bizitokian dauden pertsonen arteko gatazkak edo haserreak gertatzen direnean, bertako erakunde arduradunak horiek konpontzeko erabakitako neurriak bete.
- i) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea jarraitu, bizikidetzaz errazagoa izan dadin bai egoiliarren artean eta bai auzokoekin; eta bizilagunen elkartean jarrita dauden arauak beteko dituela hitzeman.
- j) Etxebizitzan dauden objektuak, ekipamenduak eta tresnak ondo eta errespetuz erabili.
- k) Bizitokiaren lokaletan, nahita edo utzikeria larri bidez, eragindako kalteen ardura izan.

- l) Bizitokian sartzen ez utzi zerbitzu horretan hartu gabe dauden pertsoneri edo baimendu gabeko langileei, arduradunen berariazko baimena dagoenean izan ezik.
- m) Etxebizitzako giltzaren kopiarik ez egin, eta giltzak beste inori ez utzi. Egonaldia bukatzen denean, giltzak etxebizitzako arduradunari entregatu.
- n) Bizitokian animaliarik ez eduki, azaroaren 21eko 17/1997 Legean, itsu-txakurrei buruzkoan, aurreikusitako kasuetan izan ezik, edo salbuespenezko kasuetan berariaz baimentzen badu baliabidearen erakunde arduradunak.
- o) Erreferentziako gizarte zerbitzuek eta familia horien harreraren arduraduna den erakundeak egindako banakako arreta-plana edo familiarra bete.
- p) Guztiz debekatuta dago droga eta legez kanpoko sustantziak kontsumitzea, eta armak edukitzea.
- q) Guztiz debekatuta dago baimendu gabeko pertsonak etxebizitzan ostatua hartzea.

III. KAPITULUA. PROZEDURA

5. artikulua. Sartzeko prozedura

HASIERAKO ESKAERA

- 1- Sartzeko hasierako eskaera Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez egingo da. Sinatutako eskaera-orri formalizatuaren bidez egingo da eskaera.
- 2- NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMARako apartamentua erabili eta gozatzeko arautegian adierazitako arauak beteko dituela adierazteko konpromisoa sinatu beharko du, sartzeko unean edo aurretik.
- 3- Sartzeko unean, apartamentuko giltza emango zaio onuradunari.

Prozesuaren edozein unetan pertsona interesdunak atzera bota dezake bere eskaera. Kasu horretan idatziz adierazi beharko du. Atzera egiten badu eskaera artxibatu egingo da.

TRAMITAZIOA ETA BALORAZIOA

Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute, eta derrigorrez egin beharreko txosten batean honakoak jasoko dituzte:

- Bizitokian sartuko den pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.
- Bizitoki-eskaera eragin duten zirkunstantziak.
- Epe horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Egonaldiak iraungo duen denboraren proposamena.

Txosten hori eta bertan adierazten diren zirkunstantziak ziurtatzeko agiri guztiak espedientean sartuko dira. Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, eta horrek ebazpena egingo du apartamentua emateko eskaera ontzat hartuz edo baztertuz.

6. artikulua. Egonaldia

Egonaldia NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMARI lotuta egongo da Eta Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta familia horien harreraren arduraduna den erakundearen artean adostutako esku-hartze eta akonpainamendu programa jarraitu eta betetzeari lotuta egongo da.

Behin NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMA bukatuta, Udaleko Gizarte Zerbitzuek salbuespenez luzatu dezakete egonaldia, beti ere Zarautzen ez badago NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMAREN bigarren fasera pasatzeko adin txikikoak dituen familiarik.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA BUKATZEA

7. artikulua. Egonaldia etetea eta bukatzea.

Egonaldia ondorengo arrazoiengatik bukatuko da:

- Egonaldiaren denbora bukatzea
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea
- Heriotza
- Zerbitzuaren prestazioa eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea
- Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta familia horien harreraren arduraduna den erakundearen artean adostutako esku-hartze eta akonpainamendu programa ez betetzea.
- 4 arau-hauste arin egitea
- 2 arau hauste larri egitea
- Arau hauste oso larri 1 egitea
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintza galtzea
- Arautegi honetan erabiltzaileentzat jarritako betebeharrak ez betetzea.

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak hala proposatuta, egonaldia tokatzen zaion eguna baino lehen etetea edo bukatzea erabaki ahal izango da, dagokion ebazpena hartuta, eta aurrez interesdunari entzunda.

Alkatetza da organo eskuduna erabaki horiek hartzeko.

8. artikulua. Utzarazpen administratiboa

Arautegi honetan adierazitako arrazoiengatik edo emandako epea bukatu izanagatik, apartamentua utzi behar bada, baina bertan daudenek utzi nahi ez badute, utzarazpen

administratibo bidez behartuko dira, eta hori egiteko Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 120. artikulua eta hurrengoak, edo hura ordezkatzeko duen araudiak xedatutako prozedurak jarraituko dira.

V. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

9. artikulua. Tasak

Dagokion ordenantza fiskalean jarritako tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileak.

Etxebizitza hau familia batek baino gehiagok erabili behar badu, ezarritako tasa bizikidetz-unitate kopuruaren artean zatitu eta ordainduko da.

10. artikulua. Erabiltzaileen diru-ekarpena

Egonaldiaren lehen momentutik, jarritako kopuruaren %100 ordainduko dute erabiltzaileak baldin eta horretarako berariazko diru laguntza jasotzen badute NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEN EDOTA JASOTZEN DUTENEN PROGRAMATIK.

Programatik kanpo dauden familiek edo diru laguntza hori jasoko ez luketen egoeratan, erabiltzaileak hurrengoaren arabera ordainduko lukete tasa:

- a) Ezarritako tasaren %100 ordainduko du baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetz-unitate baterako jarritako kopuruaren %150etik gorako diru-sarrerak baditu erabiltzaileak.
- b) Ezarritako tasaren %50 ordainduko du baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetz-unitate baterako jarritako kopuruaren 100%etik gorako eta %150 edo hortik beherako diru-sarrerak baditu erabiltzaileak.
- c) Erabiltzaileak ez du tasarik ordainduko baldin eta familia unitatearen diru sarrerak Diru sarrerak Bermatzeko errentaren berdina edo txikiagoak badira.

11. artikulua. Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak

Zarauzko Udalak ordainduko ditu apartamentuaren erabilera arruntaren ondorioz kontsumitutako ura, gasa eta argindarra; dena den, bere ustez kontsumo horiek neurritik kanpokoak badira erabiltzaileei kobratu ahal izango dizkie.

12. artikulua: Diziplina-araubidea

Honako hauek dira arau-haustek:

12.1. Arau-hauste arinak.

- a) Apartamentua modu desegokian erabiltzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak aldaraziz eta bizikidetzari kaltea eraginez.

12.2. Arau-hauste larriak.

- a) Apartamentuari eta ekipamenduetan kalte larriak egitea, edo etxebizitzaren zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- b) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

12.3. Arau-hauste oso larriak.

- a) Apartamentuaren lagapena egiteko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- b) Apartamentua eta ekipamenduak larriki kaltetzea, edo etxebizitzaren zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- c) Utzitako apartamentua bere xederako ez beste baterako erabiltzea. Eta bereziki baimendu gabeko pertsonak etxebizitzan ostatua hartzea.
- d) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

12.4. Zigor araubidea.

Erregelamendu honen 7. artikulua ezartzen da (egonaldia etetea eta bukatzea).

12/2008 Legean arautzen diren zerbitzuen erabiltzaileei edo prestazio ekonomikoen onuradunei leporatu ahal zaizkien arau-hauste oso larrietan, zigor gisa, eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da sei hilabeteko aldi batean, zenbait kasutan izan ezik; adibidez, etendura horrek babesgabetasun-egoeraren bat sor balezake edo mendekotasuneko egoeran dagoen pertsona baten arreta eza eragin balezake.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan jaso gabeko kasu guztietan, edota sor daitezkeen aurreikusi gabeko kasu berezi guztietan, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzeko.

Alkatetza da organo eskuduna araudi honetan jasotakoak interpretatu, argitu eta garatzeko, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legediko printzipioen arabera.

DATUAK

Hasierako onespina	2018ko azaroaren 29an
Iragarkia GAOn	2018ko abenduaren 17an (241 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2019ko otsailaren 1ean
GAOn testua:	2019ko otsailaren 18an (33 zk.)
Indarrean:	2019ko martxoaren 12an